

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



21. Informazio Buletina 2008ko Otsaila





AIPAGARRIAK

Europar Batasuneko aurreikuspenak: hazkuntza moteltzea eta inflazioaren gorakada

EB-27ko hazkunde ekonomikoa %2ra gutxituko da otsailean Europako Batzordeak egin zituen aurreikuspenen arabera. Aurreikuspen hori azaroan egin zuena baino lau hamarren baxuagoa da.

Batasuneko kide diren estatu handien artean, hazkunderako aurreikuspenik handienak herrialde hauek dituzte: Poloniak (%5,3), Herbehereek (%2,9) eta Espainiak (%2,7). Bestalde, hazkunderik baxuena Italian gertatuko dela aurrez ikusi dute (%0,7).

Bestalde, inflazioa (kontsumo prezioak), urtetik urterako tasari dagokionez, %2,9 haziko dela aurrez ikusi dute; hau da, azaroan egindako aurreikuspenean baino bost hamarren gehiago. Estatu handien artean, prezioen hazkunderik handiena Polonian (%3,8), Espainian (%3,7) eta Italian (%2,7) gertatuko dela aurrez ikusi dute.

Informazio gehiago (ingelesez/frantsesez):

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/274&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>

Gipuzkoako BPG %3,7 hazi zen 2007ko azken hiruhilekoan

2007ko laugarren hiruhilekoan, Gipuzkoako BPGren urtetik urterako hazkundea %3,7koa izan zen Eustatek hiruhilekoko kontu ekonomikoetan egindako estimazioen arabera. Hazkunde indize hori urteko hirugarren hiruhilekoan izandakoa baino bi hamarren baxuagoa da eta bigarren hiruhilekoko baino hiru hamarren baxuagoa.

2007. urte osoari dagokionez, bestalde, Gipuzkoako BPGren hazkundea %3,9koa izan zen; hau da, beste nolabait esanda, Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeetako baino ehuneko bat handiagoa.

Informazio gehiago:

<http://www.eustat.es/estad/coyunturalista.asp?idioma=e&clave=16>

Berrikuntza produktuetan, Europan enpresa arrakasta lortzeko eragilea

Berrikuntza eta hark enpresen arrakastarekin duen lotura aztertzen duen Eurostaten dokumentua. Enpresen arrakasta eratu eta handik hiru urtera helbidea aldatu gabe beren jarduerarekin jarraitzen duten enpresei dagokien izena da.

Hori dela eta, Europar Batasunaren baitan, arrakasta izan duten enpresen artean produktuetako berrikuntza da (ondasun edo zerbitzu berriak) arrakastadun enpresen artean gehien hedatuta dagoen berrikuntza mota. Haren ondoren, aipatu beharrekoa da marketinga eta distantzia handiagora, prozesuen eta antolaketa arloko berrikuntza.

Produktuen berrikuntza oinarri duen enpresen arrakastarekin lotura duten beste faktore batzuk ekintzailearen prestakuntza (goi mailako heziketa dutenak nabarmendu behar dira talde horren





baitan) eta aurretik enprekin lotutako bi ekimen edo gehiago garatu izana dira. Aldiz, adinak ez du loturarik arrakastarekin enpresa berrikuntza mota hori abiapuntu gisa hartuta.

Informazio gehiago (ingelesez/frantsesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page?_pageid=1073,46587259&_dad=portal&_schema=PORTAL&p_product_code=KS-SF-08-015





KOHESIO POLITIKA

Biztanle bakoitzeko BPG EB-27n, Errumaniako ipar-ekialdeko %24 eta Inner Londoneko %303ren artekoa da

2005eko per capita BPGren eskualde mailako kopuru berrien arabera (Eurostatek otsailaren 12an argitaratu zituen), EB-27ko eskualderik aberatsenak (Inner London) eskualderik txiroenak (Errumaniako ipar-ekialdeak) baino ia 13 aldiz handiagoa den BPG du biztanle bakoitzeko erosketari dagokionez (hau da, prezioen diferentziala zuzenduz).

Euskadiko BPG Europar Batasuneko batez bestekoaren %131koa da.

Informazio gehiago (ingelese):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/pls/portal/docs/PAGE/PGP_PRD_CAT_PREREL/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008_MONTH_02/1-12022008-EN-AP.PDF

Kohesio politika, iraunkortasunerako erakusgarri

Europako Batzordearen Eskualde mailako Politikaren Zuzendaritza Nagusiak hilero argitaratu ohi duen buletinak eskualde mailako politikek eta kohesio politikek iraunkortasuna bermatzeko bete dezaketen rol garrantzitsua azpimarratu du. Era berean, klima aldaketaren eraginak arintzeko eta haietara egokitzeko egindako ahaleginak bultzatu eta energiaren eragingarritasuna hobetzen eta energia iturri alternatiboak garatzen lagundu dute politika horiek.

Aldi berean, aipatutako aldizkariak ESPON-2013 programa (Europako lurraldearen antolamenduaren sareko behatokia) merkaturatu izana agertu du. Programa horren helburua politika garatzen laguntzea eta lurralde mailako garapenaren esparruan Europako komunitate zientifikoa sortzea da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/newslet165/165_08_es.pdf





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Lisboako Estrategia betetzeko funtsezkoak diren gaiak

Lehiakortasun arloaz arduratzen diren Europako ministroek otsailaren 25ean Europar Batasuneko Batzordeak egin zuen bileran Lisboako estrategia garatzeko prozesuan funtsezkoak diren gaiak biltzen dituen dokumentua prestatu zuten.

Dokumentu hori ("erronkak aukera bihurtzea") da talde horrek Batasunak udaberrian egingo duen Batzordeari eskainitako ekarpena eta ezagutza eta berrikuntza arloko inbertsio eremuetan garatu beharreko ekintzak eta ETEen potentzial ekonomikoa askatzea dira haren oinarriak.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://www.consilium.europa.eu/ueDocs/cms_Data/docs/pressData/en/intm/98895.pdf

Babes soziala eta gizarteratzea, Europako garapen iraunkorra lortzeko ezinbestekoak

Europako Batzordeak babes sozialaren eta gizarteratzearen inguruko txosten bateratuaren proposamena onartu zuen urtarrilaren 30ean.

Oinarrizko mezuen artean, politika soziala eta ekonomikoa elkarrekin babes daitezkeela eta babestu beharko lirakekeela aipatzen du. Europaren garapen iraunkorra lortzeko, ezinbestekoa da txirotasunari eta gizarte bazterketari aurre hartzea eta egitea babes sozialaren modernizazio berriaren bidez horretarako egokiak diren politika fiskalen testuinguruaren baitan, gizarte babes egokia eta iraunkortasun ekonomikoa bateratuz.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0042:FIN:ES:PDF>

Hori justifikatzen duen dokumentua (ingeleza/frantsesa):

http://ec.europa.eu/employment_social/emplweb/news/news_en.cfm?id=367

Lehiakorra den sektore metalikoa mantentzea da Europako Batzordearen helburua

Europako Batzordeak Europan sektore metalikoa mantentzea finkatu du helburu gisa sektorean berrikuntza bultzatzea eta produktibitate maila altua oinarri gisa hartuta, otsailaren 22ko jakinarazpen batean irakur daitekeen moduan.

Jakinarazpen horrek sektore mailako lehiakortasun faktoreak aztertzen ditu: aldaketa klimatikoa eta ingurumen arloko beste erronka batzuk adibidez (energia, lehengaietarako sarrera, I+G edo merkataritza).

Informazio gehiago (ingeleza):

http://ec.europa.eu/enterprise/steel/COMM_PDF_COM_2008_0108_F_EN_ACTE.pdf#page=1





DOKUMENTUAK

Europako Berrikuntzaren Aginte Taula

Europako Berrikuntzako Aginte Taularen zazpigarren edizioak Europar Batasuneko eta beste herrialde batzuetako (Japonia, Estatu Batuak, Kanada, Australia eta Israel, esate baterako) berrikuntza arloko emaitzen alderaketa biltzen duen azterketa zabala agertzen du.

Berrikuntzako adierazleen panel zabalaren azterketa abiapuntu gisa hartuta, aztertutako herrialdeak lau taldetan sailkatzen ditu. Horren arabera, berrikuntzan liderrak diren herrialdeak hauek dira: Suedia, Finlandia, Danimarka, Alemania, Erresuma Batua, eta Israel, Japonia, Suitza eta Estatu Batuak.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://www.proinno-europe.eu/metrics>

2007-2008 enpleguari buruzko txostena

Europako Batzordeak otsailaren 29an adostu zuen txostenean irakur dezakegunez, azken bi urteotan ia sei milioi eta erdi lanpostu berri sortu dira eta 2009. urterako beste bost milioi lanpostu iragarri dituzte. Hori dela eta, 2008. urtean langabezia %7 baino gutxiagokoa izango dela aurrez ikusi dute; hau da, beste nolabait esanda, 80ko hamarkadaren erdialdetik izan den mailarik baxuenera.

Hala eta guztiz ere, kezkarriak diren beste gai batzuk ere aipatzen ditu: batez ere, gazteen langabezia, eta hezkuntza eta prestakuntza arloko inbertsioen gabezia.

Txosten horren arabera, ezinbestekoa da giza kapitalean inbertsioak nabarmen ugartzea, eta batez ere, lan merkatuko beharretara zuzendutakoak, mundu mailako gure lehiatzaile nagusiekiko dugun produktibitate arloko desfasea ase ahal izateko. Ikasketa oso adin goiztiarrean hasi eta bizitza osoan jarraitu beharko genuke. Horrez gain, testuinguru profesionalean lortutako prestakuntzak Europa osorako onartu beharko lirateke.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/employment_social/employment_strategy/pdf/jer2007_2008_es.pdf

Enplegu eskaera eta prestakuntza profesionala Europan 2015eko etorkizunean

Cedefopen argitalpen honek Europako prestakuntza profesionalaren inguruko lehen aurreikuspenak biltzen ditu epe ertainera begira.

2015. urtera arte enplegu eskaera aztertzen du sektorearen, lanbidearen eta prestakuntzaren arabera kide diren estatuen artean.

Profesional gehien kasuan, gaitasun eta trebakuntza berrien eskaera (baita prestakuntza maila txikikoaren enpleguaren kasuan ere) handitu egin dela aipatzen du. Horren eragilea zerbitzuen sektoreak bizi duen garapena eta antolaketa eta teknologia mailako aldaketa





handiak izan dira. Era berean, enpleguk prestakuntza maila altuagoa izan beharko dute "lan bera" egin ahal izateko.

Informazio gehiago (ingelese):

<http://www.cedefop.europa.eu/index.asp?section=3&read=3149>

Metalaren sektorea Europan

Europako Batzordearen zerbitzuen lan dokumentua da eta metalaren sektoreko adierazle nagusiak aztertzen ditu 27 estatuk osatzen duten Europar Batasunean.

1,1 milioi laguni lana ematen dion sektoreak balio erantsia handitzean oinarritu du bere lehiakortasuna. Horretarako, produkzioaren integrazioa, antolaketa, eragingarritasunaren hobekuntza, prestakuntza profesionala eta berrikuntzako eta produkzioko kalitatea bultzatu ditu. Aldiz, lehengaien eta energiaren kostuak eta eskuragarritasuna, eskulanaren kostua eta araudiak dira agertzen dituen ahulezia puntu nagusiak.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/enterprise/steel/COMM_PDF_SEC_2008_0246_1_EN_DOCUMENTDETRAVAIL.pdf#page=1





ADIERAZLEAK

Udalmap : Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien informazio sistema

Otsailaren 6an, Udalmap izenekoa aurkeztu zuten. Udalmap Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal informazioa biltzen duen zerbitzua da. Sistema Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta Eustatek prestatu dute eta iraunkortasuneko adierazleen panela biltzen du udaletako azpiegiturak eta ekipamenduak agertzen dituen panelarekin batera.

Udalmapen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako errealitatea zehaztasunez ezagutaraztea eta gizarteari zuzendutako zerbitzu orokor gisa informazio hori hedatzea da.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-udalmap/eu/contenidos/informacion/udalmap/eu_udalmap/udalmap.html

Europar Batasuneko enplegu tasa %66ra iritsi da, nahiz eta moteltze ekonomiko txikia gertatzen ari den

Eurostatek prestatu eta otsailaren 18an argitaratu zuen Europar Batasuneko laneko merkatuaren inguruko neguko hiruhilekoko txostenak berretsi egin du Europako lan merkatuan gertatu egin den hobekuntza. Izan ere, guztira, 223 milioi pertsonak osatzen dute merkatu hori, aurreko urtean baino 3,5 milioik gehiagok (%1,7 urtetik urterako ehunekoen alderaketari dagokionez).

Enpleguaren tasa globala %66koa izan da; hau da, aurreko urtean baino ehuneko bat altuagoa.

Gipuzkoan, enplegu indizea altuagoa da. 2007ko azken hiruhilekoan, %71ra iritsi zen, %57ra gizonezkoen kasuan eta %58ra emakumezkoen.

Informazio gehiago (frantsesa/ingelese):

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/250&format=HTML&aged=0&language=FR&guiLanguage=en>

Turismoa Europan: gaua igaro zutenen kopurua %3,1 hazi zen 2007an

Europar Batasuna osatzen duten 27 estatuetako turismoaren bilakaeraren inguruan Eustatek prestatu dituen 2007ko lehen emaitzen arabera, gaua igarotako pertsonen kopurua %3,1 hazi zen 2007an. Hazkunde handiena izan zuten estatuak Polonia, Errumania eta Letonia izan ziren.

Hala ere, bost estatuk soilik biltzen dituzte guztizko kopuru horien %71. Hauek dira herrialdeak: Espainia, Italia, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua.

Gipuzkoan, gaua igarotakoen urteko kopurua %1,9 hazi zen urte hartan.

Informazio gehiago (ingelese/frantsesa):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page?_pageid=1073,46587259&_dad=portal&_schema=PORTAL&p_product_code=KS-OA-08-005



**Zerga itunduen bidez bildutako dirua %9,8 hazi zen Gipuzkoan 2007an**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko abenduaren 31ra arte zerga itunduen bidez bildutako diru likidoa 4.367 milioi eurokoa izan zen; beste nolabait esanda, aurreko urtearekin alderatuta, igoera %9,8koa izan zen. Bildutako diru horrek %107,5eko aurrekontuaren exekuzio maila erakusten du.

Bildutako diruari baitan garrantzi handieneko zerga kontzeptuei dagokienez, PFEZren bidez jasotako dirua %13,7 hazi zen; Sozietateen gaineko Zerga, aldiz, %14,1; berezko gestioaren BEZ %12,1; eta zerga bereziak, aldiz, %6,5.





PARTAIDETZA

Euroaren hamargarren urteurrena ospatzeko txanponaren diseinua aukeratu dute

Urtarrilaren 21etik otsailaren 22ra arte, europarrek, Internet bidez, euroaren hamargarren urteurrena omenduko duen bi euroko txanpon berriaren diseinua aukeratu zuten aukeratutako bost proposamenen artean. Ia 142.000 boto jaso zituzten eta %42k aukeratu zuten diseinu irabazlea.

Diseinu hori George Stamatopoulos eskultorearen lana da eta merkatu bakarrak bizi izan duen historia luzea erakusten du, historiaurreko truketik hasi (txanponean oroitzen da) eta moneta batasunera arte.

Informazio gehiago:

<http://www.eurodesigncontest.eu/index.cfm?lang=es>

